

**Boteluzea, mahai-joko
bihurturik**

**Martxoaren 1ean
hasiko da Soinurbil**

**Larunbat honetako
kantu-jira eguerdian
ospatuko da**

noaia



**Errausketaren Aurkako Martxak
herriko talde eta eragile askoren
babesa jaso du**

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2015 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2015eko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.



NOAUA BIDAIAK
BIDAIATZEN LAGUNTZEN DU



GREZIAKO IRLETARA KRUZEROA

IRTEERA: 2016ko irailaren 12an Lasartetik

ERRESERBAK ETA INFORMAZIOA

943 373 613
info@noaoabidaiak.com

eskeintza gehiago www.noaoabidaiak.com

HIPODROMO ETORBIDEA 10 · 20.160 LASARTE ORIA GIPUZKOA

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio

BAI

- Komertzioetako plastiko poltsa
- Kafe kapsulak hustu
- Albal papera
- Aerosolak
- Erabili-hustutzeko lorontziak
- Plastikozko botilak, letak eta tetrabrickak
- Merrubien egurrezko kaxa txikiak

EZ

- Medikamentu koaderrak
- Ontziak likidoarekin (hustu eta tolestu)
- Tonerrek
- Lorontzi finko goyorrak
- Plastikozko eskulerruak
- Jostailuak



Albiste iruditan

Landaberri Ikastolak 50 urte beteko ditu aurten

Mende erdia beteko du aurten Landaberri Ikastolak. Gogoan izan, hastapenetan hainbat usurbildar izan zirela bertan ikasten. Ikasle, guraso eta irakasle ohiak batu nahi ditu urtemugak. Horretarako batzorde bat lanean hasia da eta bilera deitu du ostegun honetarako.

“Landaberri ikastola sortu zela aurten 50. urteurrena ospatuko da. Hori dela eta, urteurrena prestatzeko osatu den batzordeak bilera egingo du. Batzordeak bertako partaide izan diren guraso, ikasle, irakasle edo beraien iradokizunak eman nahi dituzten herritar edo eragileei ere bilerara gonbita egiten die. Helburua, 50. urteurrena ospatzeko ideiak eta proposamenak biltzea izango da”, deitzaileen esanetan,

Bilera ostegun honetan, otsailak 25, arratsaldeko 18:00etan Lasarteko Landa-



Ostegun honetarako bilera irekia antolatu dute. Helburua “50. urteurrena ospatzeko ideiak eta proposamenak biltzea izango da”.

berri-Garaikoetxea eraikinean. Hitzordura gerturatu ezin duenak, landabe-

rri50@gmail.com helbidera idatziz ere egin ditzake ekarpenak.

Laburrean

Azken ostirala

Euskal preso eta iheslarien eskubideak errespetatzea exijitzeko elkarretaratzea ostiral honetan, otsailak 26. Usurbilen Nahi Ditu-gu elkarteak deituriko hitzordua, ohi bezala, iluntzeko 20:00etan hasita Mikel Laboa plazan.

KzGuneko ikastaroak

- Martxoak 1-10, 16:00-20:00: Argazki ukitua GIMP erabiliz.
- Martxoak 11-22, 16:00-20:00: Google aplikazioak zure kudeaketa pertsonalerako.

Informazio gehiago: 943 023 684 / tutor.usurbil@kzgunea.net edo kzgunea.eus

Tipi-Tapako zozketa

Legatzadun pintxo festa ospatu zen igandean. Amaieran, ohiko bi zozketak egin zituzten. Sarrituek Txiribogatik pasa beharko dute sari bila.

- 1.saria, 150 euroko erosketa balea: 3.726.
- 2.saria, 2 lagunentzako afaria: 3.730.

Hurrengo Tipi-Tapa, martxoaren 13an.

noaua

Kultur Elkarte

Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil

943 360 321 // elkarte@noau.eus // www.noau.eus

Jendaurrreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noau.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L

Erredakzio kontseilua,
erredakzio@noau.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieto, Maddi Galbete,
Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,
Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luis Aranalde

Neska daniarra

Aspalditxo honetan zinemara joan gabe nengoen eta duela aste pare bat izan nintzen “neska daniarra” ikusten; kritika batzuk irakurrita nengoen joan aurretik, onak eta txarrak, beti bezala. Niretzat arte obra batek emozioa sortu behar du ikus entzuleriagan. Hori lortzen badu, balekoa da. Eta pelikula honek izugarrizko zirrara sortu zidan.

Filmaren gaia zera da: Gerda Wegener pintoreak Einer artista ezagutu zuen Kopenhageko Arte Eskolan. 1904an ezkondu ziren. Einerrek lana utzi beharra izan zuen eta emazte margolariaren neska-modelo bihurtu zen. Horrek piztu zuen berarengan aspaldiko eta oso barruko desio ezkutu bat, emakume bilakatzearena, alegia. Lili Elbe izena hartu eta sexu aldaketa ebakuntzak jasan zituen duela 85 urte. Horietako bost operazio ondoren, azkenekoan sortutako konplikazioen ondorioz hil zen 1931n. Emazteak laguntza osoa eman zion une latz horietan, hain zuzen ere, bere ahizpa bezala aurkezten zuen bere burua. Hil aurretik lor-

tu zuen pasaporte ofiziala Lili Elbe izen abizenekin. Hamalau hilabetez bizi izan zen sexuaz aldatu ondoren. “Agian ez da asko, baina zoriontsu izan naiz”, idatzi zion lagun bati.

Protagonistaren interpretazioa paregabea da; Oskarra jaso berria du Stephen Hawking zientzialaria antzeztuz. Lili Elbek bizi izan zuen drama oso ondo islatzen du pelikula honek. Eskizofrenikoa, makurra, homosexuala, anormala, zoroa... Horrelako irainak jasan zituen urte luzez. Gizarteak ez zuen onartzen; lesbofobia eta transfobia gainditzeko gaitasun eza oso ondo agertzen da historia honetan.

Gogoeta pare bat egin nahi nituzke ikuskizun hunkigarri honen ondoren:

1-Gaztetxo eta gazteen heziketan asko jorratu nuen desberdinarekiko agertu behar genukeen errespetuzko jarrera; hain zuzen ere, Santo Tomas Lizeoan erlijio kulturaren helburuetako bat hori izan zen: tolerantzia eta ezberdinarekiko begirunea lantzea. Aginagan lan bera egiten saiatu nintzen. Gogoratzen naiz gazteei nola bota nien “Priest” (Apaiza)

filma eta asko gustatu zitzaizen. Dotore asko agertzen zuen apaiz bat nola bazterten duten eliztarrek homosexuala dela jakiten dutenean. Gotzainaren jokaera ere antzekoa: “Zu, Kristoren gorputzean sortutako pustula bat besterik ez zara”, esaten dio. Homosexualitatearen gainean hitz egiteko aspaldiko lagun dudana Inigo Lamarka eraman nien Aginagara; argitaratu berria zuen “Gay nauzu” liburua; bertan kontatzen ditu bere bizipenak, kezkek, jasadako bazterketak eta abarrak. Hitzaldi horretara gazteak eta beren gurasoak gonbidatu nituen. Esperientzia oso baikorra izan zela zioten.

2-Elizaren jarrera, hierarkiarena batik bat, bestelakoa izango litzateke estilo honetako pelikularen bat edo beste ikusiko balituzte, arazo horiek dituzten pertsonekin hitz egingo balute, beren kezkek eta desirak ulertzen saiatuko balira. Ez da posible Liliren begirada horiek (ia beti erruki bila) ikusi eta enpatiaz edo gupidaz ez jokatzea. “Jainkoak horrelakoa egin ninduen eta sendagileei esker ni neu izatera iritsi nintzen”, zioen Lilik. Eskerrak Frantzisko Aita

Santuak hankaz gora bota zituen elizaren transfobia jarrera guztiak Diego Neria transexualari Erromara deitu zionean. “Aita Santu hau bedeinkatu bat da; argitasuna, lasaitasuna eta gizatasuna dario. Bakez beterik utzi ninduen”, dio Diegok.

Prentsan irakurri dut gaur aitz poztu nauen berria: lehen aldiz Gipuzkoan Luken deitzen zen 4 urteko mutiko transexual bati Luzia jarri diote izen. Horretarako in-forme piloa aurkeztu beharra izan dute: eskolarena, pediatarrena eta alkatearena. Azkenean lortu dute izen aldaketa. Haurraren amak dioenez transexualtasuna ez da gaixotasuna, aniztasunaren parte bat baizik. Urtebetetik hona eskola kideek, irakasleek eta gurasoek nexka gisa tratatzen dute Luzia eta inongo arazorik ez da egon. Lili Elbek, milioika homosexualak eta transexualak eta beren gurasoek egindako borrokari esker gaur normaltasun osoz hartzen da gizartean sexu aniztasuna. Abi eta Agus, Luziaren gurasoak, bejondeizuela!

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Nerea Zinkunegi | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | **Luis Aranalde** | Idoia Torregarai

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUalk ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: martxoak 4. Idatzia ekartzeke azken eguna: otsailak 29.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA
· KOLONAREN HIDROTERAPIA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

Udal Gobernuak legealdi osorako programa aurkeztuko du Sutegin

Ostegun honetan, otsailaren 25ean aurkeztuko du Udalak, 19:00etan hasita Sutegiko auditorioan, legegintzaldiko gobernu programa. 2016-2020 bitartean Usurbilgo Udal Gobernuak aurrera eramango dituen ekimenik garrantzitsuenak aurkeztuko dira bertan. Ekitaldia irekia izango da, herritar guztientzat.

Udal diru-laguntzak eskatzeko azken egunak

Herri eragileek, kultur, kirol, gizarte ongizate, ingurumen eta nekazaritza zein abeltzaintza eremuetan egitasmoak sustatzeagatik, Usurbilgo Udalak abian duen diru-laguntza deialdian parte har dezakete. Eskabideak otsailaren 29ra arte aurkez daitezke. Informazio gehiago:

- Otsailaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.
- Udal erregistroan: astelehenerik ostiralera, 08:00-14:30.
- 943 371 951



Ekitaldia herritar guztiei irekia da. Ostegun honetan, 19:00etan Sutegin.

Langabetuak kontratatzeko diru-laguntza deialdia

Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek, langabetuak kontratatzeko diru-laguntza deialdi berria egin dute Lanbiderekin elkarlanean. Martxoaren 1a baino lehen langabetuak kontratatzen dituzten eskualdeko enpresak, martxoaren 31ra arte aurkeztu ahaliko dira diru-laguntza deialdi honetara. Eskae-

rak, Andoaingo udaleko Enplegu lansailean aurkeztuko dira: Urigain etxean La salle etorbidea, 6 (Andoain) 943 304 221

Kontratuen iraupena gutxienez 3 hilabetekoa izan behar du, lanaldi osora edota erdira eta dirulaguntza lanaldi osorako bada 3.000 eurokoa izango da, aldiz, lanaldi erdira izanik 1.500 eurokoa. Deialdi honen bitartez, guztira, 11 kontratu burutzeko aukera dago.

Murrizketa, Lurraldebus zerbitzuan

Lurraldebusek urte luzez Amaran izan duen autobus geltokia ezabatu du bere ibilbidetik eta honenbestez zerbitzua murriztu du. Aurrerantzean, Usurbildik Donostia erdiguneraino baino ezingo gara joan autobusez.

“Ez dute geraldirik egingo Pio XII.an. Antiguatik sartuko dira eta San Martin 25 geraldetik Askatasunaren Hiribideko 24ko geraldikura joango dira zuzenean”, Lurraldebusek ohartarazi duenez.

Informazio gehiago:

- lurraldebus.eus
- 943 415 208
- Emaila: gfa_garraio_idazk@gipuzkoa.eus



Ez du geraldirik egingo Pio XII.an. Usurbildik Donostiako erdiguneraino joango da zuzenean.

Ika-mika

Ene lagun Olano

Otsailaren 14an San Barentin egunez berrogeitamar urte beteko hituan, baina orain hilabete utzi gintuan inork espero ez genian bezala. Ederki afaldu genian tertuli ederrak izanez eta hurrengo egunean lanera joan beharrekoak garaiz joan ginen. Hik hurrengo egunean arratsalde lan egin behar huanenez luzatu egin huan bertako egona, inori esan gabe hire intentzioen berri. Bi egunetara jaso genian ezuzteko latza, elkarriz afaldu eta gero gauerdian angulak biltzera joan eta hiri gertatutakoaren berri. Ez nian sinistu nahi baina egia

huen hire heriotzarena. Askori entzun nien orduan eta egun batzuetara hitaz galdera hauxe eginez. Zergatik ez ote hintzen besteok bezala hi ere etxeratu anguletara joan ordez?

Baina galdera ustela hi ezagutu ezker. Bost minutu libre izanda nahikoak hituan hire nahietan inbertitzeko. Ehiztari amorratu hori, perretxiku biltzaile porrokatua, anguletan ere berdin,... Ez hintzen geldirik egotekoa. Halaxe hintzen eta hala onartu beharko, gустuko lekuan aldapik ikusten ez huena, nahiz eta pareta galantak egon aurrera ekingo huena. Hik oso gustora hartzen huen

piztia deitzen hindutenean. Agian, esan liteke kasta berezi horretan gelditzen diren bakanetako bat hintzela.

Oso gustuko hituan lagunarteko apustuak eta Saizarreko afari horretan ere bat egin genian, noski haizeak eraman duena. Irujo zale, Athleticen aurkari, sanpedrotarra... Denok nahi izaten genian mahian hire ondoan jarri, beti bahun konturen bat hemendik edo handik guztiok gustora entzuten geniana, artista bat hintzen lagunarteko saltsak pizten. Zer esan handiak ematen hituan elkartzen ginen bakoitzean eta azkenean ere zer

esan handia emanaz gure ondorengorik joan haiz. Ezin sinisturik nebilek ez hautenik gehiago ikusiko baina sinistu beharra diat. Bizitzatik harat igaro beharreko horma uste baino lehenago igaro duk hik eta orain sortu didaken hutsunea iraganari begira bete beharko diat. Zenbat istorio ahaztuta zitxaudenak berreskuratuko dituen memoriak, hauxe eta beste oroitzapen asko geratuko dituk gurean, beraz hemen jarraitzen dudana bitartean ametsetan jarraituko diagu hitz egiten.

Kerman Rekondo

Plazako jokoen transmisioa sustatu asmoz, 'Boteluzea' izeneko mahai-jokoa asmatu du

Daniel Carballo zumaiarra da. Arkitektoa lanbidez, eskolak ere ematen ditu unibertsitatean. Pilotari buruzko tesi bat idazten ari da. Eta azterketa honi esker konturatu da frontoiak irentsi duela pilota jokoak; boteluzea, errebotea eta antzeko plaza-jokoen kalterako. Daniel Carballok pilota frontoitik plazara atera nahiko luke berriro. Eta tesia idazten diharduen bitartean, 'Boteluzea' izeneko mahai-jokoa asmatu du.

Paretaren kontra jokatu izan da beti pilotan. Daniel Carballo zumaiarrak ere hori uste zuen. Baina idazten ari den tesiarekin konturatu da pilotaren sustraiak bestelakoak direla. Plaza irekian jokatzen zen, boteluzean edo errebotean egiten den bezalatsu. "Madrilen, Italian eta Europako leku pilo batean erreferentzia antzekoak ziztuzten duela hainbat mende. Jokoa berdina zen, arraiak eta kintzeak markatzen ziren...". Denborarekin, toki bakoitzean modu ezberdinean joan zen pilota jokoak garatzen.

NOAUA! Tesiarekin ari zinela otu zitzaizun mahai-joko hau egitea. Daniel Carballo. Tesirako bilaketak egiten hasi nintzenez, jendeak aurrietik egindako lan batzuk aurkitu nituen. Baztanen adibidez, jokoa bizirik dago oraindik, eta bertako Tiburtzio Arrastoak liburu batzuk pasa zizkidan. 'Pilota Plazan' izena zuen liburuetako batek, eta hiri-gintza eta pilotaren arteko harremanaren berri ematen da bertan. Ordura arte ez nekien boteluzean jolasten zenik ere, ezta Europa mai-



"Nola lortuko nuke boteluzearen jokoa neure seme-alaben memorian txertatzea?". Kezka horri erantzuteko, Boteluzea mahai-jokoa asmatu zuen.

DANIEL CARBALLO

"Paretaren kontrako jokoarekin lotzen dugu pilota, jakin gabe boteluzea eta antzekoak lehenagotik zabaldua zeudela gure herrietan"

lan zabaldua egon zenik ere.

N. Pilota, egun indarrean den pilota jokoarekin lotzeko joera dugulako.

D. C. Hori da. Aztarnen bila hasi ginenean konturatu nintzen horretaz. Beti paretaren kontrakoarekin lotzen dugu pilota, jakin gabe boteluzea eta antzekoak lehenagotik zabaldua zeudela gure herrietan.

Galdera horri lotuta dago nire kezka. Nola lortuko nuke boteluzearen jokoa neure seme-alaben memorian txertatzea? Ba partxis edo oka-jokoa bezain erakargarri eginez. Zeren boteluzea ikusten ez badute, nola transmititu?

N. Eta mahai jokoak osatzeari ekin zenion.

D. C. Egia esan, txantxetan hasi nintzen honekin. Eskuz marrazteko ohitura dut eta eguberri batzuetan ebakigarri bat egin nuen: "Boteluzea, pilota-joko eramangarria. Eraman ezazu zure boteluzea" lema ipini nion eta Facebooken zabaldu nuen. Jendea xaxatzeko batez ere.

Eta era berean, semearekin eta alabarekin hasi nintzen esperimintatzen. Jokoa araudia banekien eta hori dado jokora egokitu nuen. Oinarriko arau batzuetara egokitu dut, baina nahi izanez gero zertxobait zaildu daiteke.

N. Zubietako plazaren itxura eman diozula dirudi.

D. C. Ez, nire plaza kuttuna Abaltzisketako da. Desagertuta dago, errepidea pasatzen da erdi erditik gaur egun, baina botarria ikusgai dago oraindik.

Dena den, errepikatu egiten dira bai formatua eta bai elementuen kokapena. Era batera edo bestera, antzeko errepresentazioak daude denetan.

"XIX. mende bukaeran hasi zen pilota plazen gainbehera"

NOAUA! Plazako jokoa bezalaxe, plaza irekia ere galzorian al da?

D. C. Ezker pareta errudun. XIX. mendean, pilota jokoa jabe egiten dira enpresa gizonak. Profesionalizatu egiten da, plazetako herri desafio horien kalterako.

Hori baino lehen, bi talde aritzen ziren, bi herri, profesionalizazioarekin idoloak agertu ziren arte. Txikito de Eibar eta horrelako

personeiak. Jende asko erakartzen zutenak.

Desafio horiek garatzen joaten dira, eta enpresa gizonak bista handiarekin formatu berri bat ematen diote pilotari. Ategorrietan Jai Alai frontoia eraikitzen dute eta negozioa formalizatzen da. Sarrera ordaindu egin behar da eta apustua jartzen da. Erregina Donostiara etortzen zen, eta aristokraziaren artean arrakasta

izan zuen formula horrek. Hori dena bertako kirolaren kalterako izan zen. Plazako kirola zenaren kalterako.

Herri guztiek nahiko dute ezker pareta bat eraiki. Amezketako pilota plazak errebotea zeukan. Baina XIX. mende bukaeran eraikitzen dute ezker pareta, etxe baten aurrean. Ermuan ere bai. Adierazgarriena Otxandiokoa da. Eliza baten aurrean eraiki zen ezker pareta.

Nork onartuko luke horrelakorik? Ba pilota jokoa lortu zuen. Pentsa zer nolako arrakasta izan zuen.

'Euskal Herria' aldizkarian kronika batzuk agertzen dira, eta denek pilota joko berria nahi dutela bere herrian. Desagertzen hasten dira errebotea paretak eta ezker pareta bihurtzen dituzte.

XIX. mende bukaeratik XX. mendera bitartean, pilota plaza pilo bat desagertu ziren.

“Espazio publikoa ixtearen kontra nago”

NOAUA! Tesia aurreratuta duzu. Zertan oinarrituko zara?

Daniel Carballo. Idazten hasia naiz. Batetik, jaso dudan material guztia antolatu nahiko nuke. Aurkitu ditudan aztarnak eta erreferentziak antolatu eta erakutsi. Eta bestetik, pilota jokoa nola gaur-eguneratu plazan. Horretan oinarritu nahi nuke tesia.

Garai batean, eremu publikoa erabileraren arabera eraldatzen zen. XIX. mendetik hona ordea, eraikinetan espezialdu gara. Pilota pribatizatu egin da, kirol eraikinak altxa eta espazio publikoa galdu egin da. Eta ni espazio publikoa ixtearen kontra nago.

Baztanen herri txikiak dira, hirigintza handirik ez dutenak, espazio publiko horiek mantentzen asmatu dituzte.

N. Aterperik gabe, eguraldiak baldintzatuta daude boteluzea edo errebotea bezalako jokoa.

D. C. Badakit artisautzaren eta ohituraren kontra dagoela baina hemen erabiltzen diren materialak, xistera, larrua, pilota... Ez dira eurritara ondo egokitzen. Gaur egun material sintetiko pilo bat dago. Beisbol eta softboleko pilotak eta bateak guztiz sintetikoak dira.

Inork ez du inbertituko, eta ez du inbertitu nahi izango ere garapen horretan. Baina erraminta egokia izanez gero, eta euria ez bada egundokoa, errebotean jolastu daiteke.

N. Baina jokalariaentzat irris-takorra izan daiteke, ezta?

D. C. Pilotarentzat ere ez da ona euria. Baina garatu beharoko gureko pilota egokia. Begira, urte batean bi final jokatu behar izan ziren. 2013koa euriarengatik atzeratu egin behar izan zuten hainbat aldiz. 2014an jokatu behar izan zuten. Urte horretan bi final jokatu ziren! Kontua da nor dagoen horretan inbertitzeko prest. Unibertsitatea edota HirikiLabsen modukoak baliatu beharke liriteke horretarako. Gero sustraituko den edo ez, hori beste kontu bat.



“Gipuzkoan horrelako hiru pilota plaza bakarrik daude. Oiartzunen, Villabona-Amasan eta Zubietan. Horiei esker mantentzen da jokoa bizirik”.

JOKOA, KALERA

“XIX. mendetik hona eraikinetan espezialdu gara.

Pilota pribatizatu egin da, kirol eraikinak altxa eta espazio publikoa galdu egin da. Eta ni espazio publikoa ixtearen kontra nago”

Gustuko duenak hartuko du eta besteek ez.

“Jokatzen dutenei esker mantentzen da ondarea bizirik”

N. Arkitektoa zara eta Zubietako pilota plaza berri zenean, zuregana jo zuten iritzi eske.

D. C. Kirol Patronatuaren helburua pilota plaza berritzea zen eta hormigoizko pilota plaza bat egitea aurreikusten zen. Azkoitiko Oteizaren plazaren antzera. Baina pilota azkarregi joaten da. Eta erreboteko jokariak aukeran asfalto nahiago dute. Hartxintxarrak asko frenatzen du pilota eta errebotean pilota pixka bat moteltzen joaten da, horregatik asfaltoa erosoagoa da jokatzeke.

Asfaltoak gainera beste abantaila batzuk ditu. Koloreetan esperimentu asko egin daitezke. Berehala le-

hortzen da, eta atxikidura ona du.

Azken finean, plaza bizirik mantentzen dutenei erraztasunak ematea da helburua. Hori bakarrik falta da! Ez badute erabiltzen, ondarea hor izango dugu baina jokatzen dutenei esker mantentzen da ondarea bizirik.

N. Zubietakoa kasu bakarrene-takoa izango da. Plaza mantentzeaz gain, taldea ere mantentzen du oraindik.

D. C. Gipuzkoan horrelako hiru adibide baino ez daude. Oiartzunen, Villabona-Amasan eta Zubietan. Horiei esker mantentzen da jokoa bizirik.

Iparraldeko taldeek esan izan didatenez, garai batean jokoa Gipuzkoan eta Nafarroan indartuta zegoen eta, aldiz, Iparraldean galbidean. Iparraldekoak hona etortzen ziren jokoa berpiztu asmoz, eta orain alderantziz gertatzen da. Gipuzkoan herri askotan ez da jokatzen eta Iparraldean, nahikoa larri bada ere, hemen baino talde gehiago daude han.

Akaso han modalitate guztiak gehiago errespetatzen dituztelako. Plaza libreetan jokatzen segitzen dute: paretaren kontra, errebotean, paxaka, trinketea, xarean... Eta gurean galtzear dira denak eta eskuzkoa bakarrik mantentzen da, telebistan hori ematen dutelako eta gazteek erreferentzia hori baino ez dutelako.

“Mahai-jokoa merkaturatuko balitz, poz handia hartuko nuke”

Mahai-jokoaz hitz egiteko elkartu ginen Daniel Carballorekin, baina solasaldiak bestelako bideak hartu zituen.

Elkarrizketa amaitu baino lehen mahai-jokoaren gaia atera genion berriro ere. Zabalkundea handitu arren, argitaletxeetara jo du. Baina ez du interes handirik sumatu oraingoz. “Hedabideei eskerrak oihartzun gehiago izaten ari da. Ezagunek eta lagunek badute. Salto hori ematea falta da orain. Ilusio handia egingo lidake”.

Bere etxean haurrekin jolasteko asmatu zuen mahai-jokoa. “Hasieran ilusioarekin hartu zuten. Baina orain berriz... Hainbesteko eskaintza dute. Digitala izango balitz, telefonoan izango egingo lioketela. Batek app bat egin beharke nukeela esan zidan baina joko honen istorioa nondik datorren jakinik, analogikoa behar du izan!”



Laser bidezko makina batekin moztuta daude mahai-jokoaren piezak.

Alternatiben inguruko topaketa prestatzeko bilera Usurbilen egingo da

Gazte mugimenduko espresio desberdinetan parte hartzen ari diren 60 bat gazte, datorren udazkenerako alternatiben inguruko topaketak antolatu eta ordutik aurrerako bidea marrazteari ekin diote. Horretarako parte hartze prozesu bat abiatua dute. Lehen asanblada abenduaren 19an egin zuten, Añorgako Firestone lantegi berreskuratuan. Bigarren asanblada bat deitu dute, oraingoan Usurbilen; martxoaren 5ean, 09:30-16:30 artean, Udarregi Ikastolan.

“Alternatiben gaineko eztabaida orokor bat emango dugu. Eremu bakoitzak bere eztabaida propioa egingo du, datozen hilabeteetan ere eremuan eman beharreko prozesua zehaztuz. Topaketen eta topaketetarainoko bidea adostuko dugu, herri eta auzoetan izango duen ibilbidean sakonduz”, adierazi dute deitzaileek. Ekarpnakin egin eta eztabaidatzeko aukera izango da martxoaren 5ean.



Autogestioan oinarritutako proiektuak sustatu nahi dituzte Euskal Herrian zehar. Hori bideratzeko bilera deitu dute Udarregin martxoaren 5erako.

Bilera irekia

- Martxoak 5 larunbata.
 - Ordutegia: 09:30-16:30.
 - Tokia: Udarregi Ikastola.
- Sortu asmo dituzten eztabaida eremuak; lana, etxebizitza, sorkuntza, gaztetxe eta gazte asanbladak, iraunkortasuna, euskara, elikadura burujabetza, kirolak, hezkuntza, feminismoa, jai herrikoiak eta proiektu komunikatiboak. Bestelako eremuak sortzeko aukera egongo da baita.
- Egitaraua:**
- 09:30-10:00 Sarrera: ongi etorria, gosaria eta taldeetan apuntatzea.
 - 10:00-11:30 Alternatibak:

komunean eta ildoka, bakoitzak alternatibaren eztabaida egitea:

- “Gure Kabuz ala Hil” dokumentalaren ondorio aurkezpena.
- Lantaldeka, eztabaidak eta ekarpen bilketa.
- 11:40-13:10 Eremuka banatu: alternatiben gaineko diskurtsoak osatu; eremuan egindako gogoetak konpartitu eta aurrera begirako urratsak adostu.
- 14:00-15:00 Bazkari “express”.
- 15:00-16:30 Topaketen aurkezpena: proposamena plenarioan aurkeztu eta goizeko lan taldeetan eztabaidatu.

Odolaren Mintzoa eta Izeberg, Gazte Danbada

Martxoaren 25etik 28ra, Aitzina eta Ernai gazte erakundeek Gazte Danbada antolatu dute Laudion, “Esna harrapa zaitzala” aldarripean. “Oholtza gainean bakerik ez” egitasmoan lehiaketak modukoa jarri zuten martxan. Bertan arituko dira Odolaren Mintzoa eta Izeberg taldeak.

Guztira 66 taldeek parte hartu lehiaketan, horietatik bost usur-



bildarrak ditugu: Odolaren Mintzoa, Izeberg, Hotzikara, Floxbin eta Kezka.

Gazte Danbadako karpan jotzeko aukeratuak izan ez diren



taldeekin harremanetan jarriko dira, “herriko beste puntu batzuetan jarriko dituzten eszenatokietan jotzeko proposamenak helarazteko.”

Gure Esku Dagoren bazkietza kanpaina

Ostiral honetan frontoi inguruan jarriko duen mahaira gerturatuta, Gure Esku Dagoren bazkietza egin ahal izango duzue. Bazkietzak, mugimendua ekonomikoki sostengatzeaz gain, erabakietan parte hartzeko aukera ematen du. Gogoan izan bestalde, abenduaren 31n segurtasun arrazoiengatik bertan behera geratu zen “Borondateen kriseiluak” ekitaldia martxoaren 11n ospatuko dela. Kriseilu gabe bazarate, Lizardi liburu dendan dituzue salgai, 2,5 eurotan.

Aginagako Txokoetako izen ematea

Gerturatzen ari diren hurrengo oporretarako txokoak antolatu ditu Aginagan, Eskola Txikiko Guraso Elkarteak, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean. Txokoetako izena ordea asteotan eman beharko da, martxoaren 11 baino lehen:

Txokoetako egunak: martxoak 21, 22, 23, 29, 30, 31 eta apirilak 1.

Ordutegia: 09:00-13:00 edo 10:00-13:00.

Tokia: Aginagako ludoteka.

Izen ematea: martxoaren 11 baino lehen, aginaga@eskola-txikiak.org helbidean.

Antolatzaileak: Aginagako Eskola Txikiko Guraso Elkarteak eta Usurbilgo Udala.

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia

LABE-GOXO

EROSKI/city

kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Elkartasun martxa, espetxe atariraino

7⁴ bat autobus eta 3.500 bat herritar abiatu ziren larunbat goizaldean, Ezker Abertzaleak 40 espetxeetara antolatu zituen martxetara. Usurbilgo Oiardo Kiroldegitik ere autobus bat atera zen Foncalenteko kartzelarantz. 35 herritar guztira. Autobusa, Orio, Zarautz, Getaria eta Zumaiako herritarrekin osatu zuten. Foncalenten ziren larunbat eguerdirako, iluntzean itzuli ziren etxera.

Hain zuzen, bi herritar daude Foncalenten; Patxi Uranga eta Olatz Lasagabaster. Herrera de la Manchán, Xabier Aranburu "Xomorro" aginagarra. Ezker Abertzaleak martxan duen Abian prozesuaren testuinguruan antolatu ditu martxa hauek. Batek, euskal presoak euskal herriratzea eskatzeko, espetxean daudenei elkartasun eta babes osoa adierazteko. Baita eragile bezala, Abian prozesu honetan espetxeratuak parte hartzeak duen garrantzia azpimarratzeko ere. Hiru herri batzar deitu dituzte hurrengo asteotarako.



Ostiral gauetz abiatu ziren eta eguerdirako Foncalent espetxe aurrean ziren. Irudiak: Xingolari.

Abian prozesua:

Martxoak 5, larunbata

09:30ean Batzarra Potxoenean: "Balantze eta testuinguruaren egoeraren eztabaida".

Martxoak 19, larunbata

09:30ean Batzarra Potxoenean: "Definizio estrategiko eta eztabaida eta etorkizuneko garapenaren zehaztapena".

Apirilak 16, larunbata

09:30ean Batzarra Potxoenean: "Txosten erabakitzailearen aurkezpena, eztabaida eta bozketa".
Deitzailea: Usurbilgo Ezker Abertzalea.

Sartu www.noaia.eus helbidean eta ezagutu gure webgune berria!

Albistegia, agenda, sare sozialak, merkatu txikia, komunitatea, agurrak, eguraldia, aldizkaria online, hemeroteka... guztion eskura!



‘Sagarrondotik Sagardora’ ikastaroa hastera doa

Larunbat honetan, otsailaren 27an hasi eta irailaren 10era arte luzatuko den 8 saioko ikastaro praktikoa antolatu du Alkartasuna Kooperatibak; “Sagarrondotik Sagardora” zikloa. Ikastaro osorako eman daiteke izena edo saio solteetarako. Honatx iragarri dituzten lehen hitzorduak:

Otsailak 27, larunbata

Gaia: “Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa”.

Bideratzailea: Aitor Etxeandia.

Martxoak 5, larunbata

Gaia: “Sagastien neguko kimaketa, gaixotasunak eta tratamenduak”.

Bideratzailea: Aitor Etxeandia.



Aitor Etxeandia “Sagastien neguko kimaketa eta ongarriketa” ikastaroa eskainiko du larunbat honetan, Potxoenean. Argazkia: DV.

Saio guztien hitzordua:

■ Potxoenean, 9:00-13:00.

■ Oharra: kimaketa praktikak bertako sagastietan egingo dira.

Prezioa:

■ Ikastaro osoaren prezioa: 96 euro, Alkartasuna Kooperatibako bazkideek doan. Saio

solteetan izen emateko aukera ere badago.

Informazio gehiagorako eta izen emateko:

■ 943 361 114

■ alkartasuna@usurbil.com

■ alkartasuna.eus

■ Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

“Zure enpresa nola sortu eta kudeatu” ikastaroa

Martxoaren 15 eta 16an, Andoaingo Urigain Etxeko areto nagusian. Bi ordutegi aukeratu; goizez, 09:00-13:00 artean, eta arratsaldean, 15:00-19:00 artean. Eskualdeko udalek, Usurbilgoak tartean Lanbiderekin elkarlanean antolatu duen doako ikastaroan izen emateko epea zabalik dute interesdunek.

■ Inskripzioak eta informazio gehiago: 943 304 221

(Nerea Yurrebaso)

■ ekinean@andoain.eus

■ Lanbideren bulegoetan

“Urberritzen”, eskualdeko berrikuntza soziala lantzeko proiektua

Donostia-Beterri eskualdeko udalek, Foru Aldundiaren laguntzaz eta Urola Erdiko Berrikuntza eta Iraurgi Berritzen Garapen Agentziarekin elkarlanean, Beterri eta Urola Erdia eskualdeetan berrikuntza soziala lantzeko proiektua abiatu dute.

“Urberritzen egitasmoaren helburu nagusia da Beterri eta Urola Erdia eskualdeetan berrikuntza sozialean ardatutako dinamika iraunkor bat sortzea eta eragileen arteko artikulazioa hobetzea, etorkizunean eskualdeko erronka sozialei erantzun propioagoak eta egokiagoak eman ahal izateko eta lankidetzaren proiektu berriak sortzeko”, Elhuyar Aholkularitzak ohar bidez berri eman duenez.

Lau topagune aurrekusi dira. Lehena ostiral honetan, otsailak 26, 10:00-13:00 artean, Hernaniko Gabriel Zelaia eraikinean.

Bilkuran partehartzeko asmoa duzuenontzat:

■ 688684956 - 688685586

■ enpresa@andoain.eus

Gaztetxoentzako komiki ikastaroa

LH 5,6 eta DBH 1,2,3,4 mailako ikasleei zuzendurikoa da, Udarregi Ikastolako Hitz Aho Guraso Elkarteak, Usurbilgo Udalaren laguntzaz antolatu duen ikastaroa. Joseba Larratxek eskainiko ditu komikigintzan trebatzeko saioak gaztetxoentzat, martxoaren 3tik maiatzaren 26ra Potxoenean. Saioetarako ordutegia zehaztu dute. Hasiera batean, 17:00-18:30 artean finkatu dute hiru hilabetez ostegun arratsaldero eskainiko den ikastaroa. Baina ordutegi malgua izango dela iragarri dute Hitz Ahotik. Alegia, izena ematen dutenen arabera egokitu daitekeela hitzordua.

Ikastaroan izen emateko gerturatu Sutegi udal liburutegiko sarrerako mahaira. Bertan dituzue inskripzio orriak. Orriok datu pertsonalekin bete eta liburutegian bertan utzi, datorren astelehena, otsailaren 29a baino



Argazkian, Hitz Aho Guraso Elkarteak eta Joseba Larratxe komikilaria. Martxoaren 3an hasi eta maiatzaren 26ra luzatuko da tailerra.

lehen. Ikastaroa egin ahal izateko gutxienez, 8 lagunek eman beharko dute izena, gehienez hamabostek. Prezioa, 20 euro. Joseba Larratxek aurreratu digunez, ikastaroan zehar ikasle bakoitzak bere komikia sortzeko aukera izango du. “Saio bakoitzean komiki bat marraztean ematen den pausu bat jorra-

tuko dugu: lehenik istorioa asmatu, gero pertsonaiak diseinatu, gero zirriborroak, arkatza, tinta, kolorea... eta bitartean komikiaren historia eta munduko komiki ezberdinak ezagutzen joango gara”, aditzera eman digutenez. Eta ikastaro amaierarako, ikasle bakoitzak bere sorkuntza lana amaitzea izango da helburua.

Soinurbil, martxoaren 1etik 6ra

Azken edizioak baino goizago datorkigu aurten, Zumartekoek antolaturiko Soinurbil Musika Astea. Hamabigarrena, martxoaren 1etik 6ra ospatuko da. Salvatore Parrokiako organo erakustaldia, Lezoko Musika Bandaren, Orfeoi Txikiaren eta Tolosako Musika Eskolako bisitak, Izeba Tekla txiki-tzako ikuskizuna eta EuskOrleans taldearen emanaldia programatu dituzte:

Martxoak 1, asteartea

■ 18:30 Izeba Tekla ikuskizuna, Sutegiko auditorioan:
 ■ Sarrera: 2 euro. Egunean bertan salgai Sutegin, 17:30etik aurrera.
 ■ Nori zuzendua: 2-12 urte bitartekoei.

■ Zehaztasunak: “Haurrak eta musika dira protagonista, ez piano jolea. Haurrekin hartu emana sortzen da saio osoan zehar. Haurrek musika eta pianoa bera oso modu dibertigarri eta didaktikoan deskubrituko dute; jolasaren bidez iritsiko dira musikara”.

Martxoak 2, asteazkena

■ 18:00 eta 19:00 Organo erakustaldia Salvatore Elizan.
 ■ Zehaztasunak: “Usurbilgo Organoa berezia da. 1907an Parisen eraiki zen, Cavallé-Coll lantegietan. Joan Luis Atxega-



Xabier Lizaso piano-jotzaileak “Izeba Tekla” izeneko ikuskizun musikatua eskainiko du Sutegin. Martxoaren 1ean asteartea, 18:30etik aurrera.

ren eskutik Usurbilgo organoa gertutik ikusteko aukera paregabea izango dugu”.

Martxoak 3, osteguna

■ 18:30 Eduardo Mokoroa Tolosako Musika Eskolarekin trukaketa Sutegiko auditorioan.
 ■ Zehaztasunak: “Tolosako Eduardo Mokoroa Udal Musika Eskolak 450 ikasle inguru ditu. Usurbilera etorriko dira urtean zehar egindako lana erakustera”. Maiatzean Zumartekoak joango dira Tolosara.

Martxoak 4, ostirala

■ 20:00 EuskOrleans Taldearen emanaldia kalean.
 ■ Zehaztasunak: “Euskal kantak, New Orleanseko 20. eta 30. hamarkadetako musikara moldatzen dituen jazz taldea da EuskOrleans Dixie Band”.

Martxoak 5, larunbata

■ 17:00 Orfeoi Txiki Abesbatza Salvatore Elizan.
 ■ Zehaztasunak: “Orfeoi Txikia 1988an sortu zen, Antxon Ayestaranez izandako ideien

eta hark berak emandako bul-tzadaren ondoren”.

Martxoak 6, igandea

■ Lezoko Musika Banda, txistulari taldea eta Usurbilgo txistularien eskutik:
 ■ 11:30 Kalejira.
 12:30 Emanaldia frontoian.
 ■ Zehaztasunak: “Hasieratik Estanis Karrera, Musika Eskolako irakaslea, ari da zuzendari lanetan. Ekitaldi honetan Usurbilgo eta Lezoko txistulariak Kalejiran eta Kontzertuko bigarren zatian parte hartuko dute”.



New Orleanseko 20. eta 30. hamarkadetako musika lantzen du EuskOrleans Dixie Band taldeak. Martxoaren 4an ibiliko dira kalejiran.



Orfeoi Txiki Abesbatzak kantaldia eskainiko du martxoaren 5ean Salvatore Elizan. Irudia duela lau urtekoa da, Leonen eskainitako emanaldi batekoa.

Usurbilgo jubilatua ere, erraustegiaren aurka

Ez dute nahi erraustegirik ez Zubietan, ez inon. Gipuzkoako Foru Aldundiak eraiki asmo duen proiektuaren aurka eta halako egitasmo bat gauzatzeak dakartzan ondorioez kezkatuta agertu ziren Usurbilgo jubilatua, otsailaren 19an Mikel Laboa plazan egin zuten mobilizazioan. Argi zioten: “Ez diegu gure seme-alabei eta bilobaxoei horrelako herentziarik utzi nahi”. Otsailaren 28rako erraustegia eraiki asmo duten gunera antolatua dagoen martxarekin bat egin dute.

Haize errota koloretsuak eskutan zituztela, erraustegiaren aurkako pankartaren bueltan 60 bat lagun bildu ziren frontoi atzealdean. Orain arte jubilatuek inoiz egin duten elkarretaratze jendetsuena izan da honakoa. Adierazpen bat ere irakurri zuten. Honatx hitzez hitz dioena:

Adierazpena

“Gaur, Usurbilgo jubilatuen talde bat bildu gara Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradunek Zubietako erraustegia berpizteko hartu duten erabakiaren aurka gaudela adierazteko. Ez diegu gure seme-alabei eta bilobaxoei horrelako herentziarik utzi nahi.

Usurbildarrok, hondakinak %80tik gora gaika biltzen ari gara. Birziklatu eta berrerabili egin nahi ditugu hondakinak eta ez erre. Erraustegiak ondorio kutsakor larriak ditu, oso toxikoak diren zepak eta errausak sortzen dituelako eta gainera, prozesuan sortzen den keak osasunerako eta ingurumenerako arazo larriak dakartzalako: baratzeak, urak, lurrak... Tamalez eta batez ere, inguruan bizi gareno tokatuko litzaiguke aire toxiko hori egunerogunero arnastea. “Gaur egun, errausketaren alde dagoena osasunaren aurka dago”, hauxe da errausketaren inguruan mediku talde batek duela gutxi aldarrikatu duena, une berean, errausketaren



Aurreko astean agerraldia egin zuten Mikel Laboa plazan. Igande honetako martxarekin bat egin dute.

JUBILATU TALDEA

“Igandean, goizeko 11:00etan irtengo gara Usurbilgo frontoitik. Hitzordua, 12:00etan daukagu erraustegia eraiki asmo duten gunean”

ondorioz sortzen diren gaixotasun larrien hainbat datu kezkarri azalduz.

Bestetik, nongo zabortegitan botako dituzte zepak eta errausak? Zein herrik hartuko ditu tratamendu zehatzak eta segurtasun handia eskatzen duten zabortegi garesti eta toxiko horiek? Guk argi diogu, erraustegiak ez dizkigu zabortegiak ixten, ireki baizik.

Usurbilgo jubilatua, osasunaren eta ingurumeneraren aldeko hautua egiten dugu. Ekonomia zirkularraren alde gaude. Zero Zabor ereduari jarraitu nahi diogu. Horregatik, ez dugu nahi eta ez dugu behar erraustegirik, ez Zubietan eta ez beste inon. Paradoxa bat dirudi halere, Gipuzkoan goi-mailan hondakinak txintxo-txintxo gaika biltzen ari den herri baten ondoan erraustegia eraikitzea. Ez al da adarjotze eta lotsagabekeria galanta?

Hondakinak kudeaketa txarrak sortzen dituen arazoak guztioi eragiten digu. Berdin dio zein pentsaeretoak garen. Arazoa guztiona da beraz, eta guztioi batera beharko genuke saiatu konponbide arduratsu baten alde. Horregatik, Usurbilgo jubilatua talde honek

dei egiten die lehenik, Usurbilgo jubilatua guztiei eta gairontzekoei, otsailaren 28an, erraustegiaren aurkako mendi martxa ekimenean parte hartzea. Goizeko 11:00etan irtengo gara Usurbilgo frontoitik. Hitzordua, 12:00etan daukagu erraustegia eraiki asmo duten gunean.

Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi, alternatibak baditugulako, osasuntsuagoak, jasangarriagoak eta merkeagoak.

Otsailaren 28an goazen denok elkarrekin eta egin oihu:

Erraustegirik ez, ez Zubietan, ez inon!

Usurbilen, 2016ko otsailaren 19an”.

Erraustegia eta minbizia lotu ditu epaile batek

Madril kanpoaldean kokatua dagoen Valdemingomezeko erraustegiaren aurka, minbizia duten 36 gaixok aurkezturiko salaketa tramitera onartu du, bertako 49 zenbakidun epaitegiak. Ez hori bakarrik. Madrilgo erkidegoko Ingurumen Saileko kargu altudun ohi bat ere deklaratzera deitu du martxoaren 10erako, Valdemingomezeko erraustegiari ingurumen baime-na eman baitzion 2008. urtean, antza, alde aurretik, Tirmadrid SA jabeari ingurumen arloko eraginei buruzko azterketarik eskatu gabe.

Lehen aldia da, erraustegi honi loturiko halako ikerketa bat abiatzen duena epaitegi batek. Aipatu moduan, erraustegi honetatik gertu kokatzen diren auzuneetako bizilagunen artean areagotu diren minbizi kasuekin duen lotura epaituko baita. Epaileak eskuartean ditu,



Madrilgo Vallecas auzoaren ondoan dago Valdemingomezeko errauste planta. Irudia: CronicaGlobal.

36 GAIXOREN EKIMENEZ

“Valdemingomezeko erraustegi ondoan minbizia garatu duten 36 gaixok aurkezturiko salaketa tramitera onartu du epaileak”

erraustegiak isurtzen dituen ke toxikoen eragindako kalteei buruzko ingurumen eta epide-

miologia txostenak.

Salaketa aurkeztu duen herritar taldeak artean, Valdemingomezeko erraustegia eta zabortegeak itxi eta zero zabor irizpideetan oinarrituriko hondakinen tratamenduak sustatzea eskatzeko, sinadurak biltzeko kanpaina abiatu du. Bildutako sinadura eta eskaerak Madrilgo Udalera eta erkidegoko gobernura helaraziko dituzte.

Erraustegiaren aurkako mendi martxarekin bat egin dute inguruko herri askok

Azpiegitararen kokaguna inguratzen duten udalerrietatik herritar zutabe bana abiatuko da otsailaren 28an, erraustegia eraiki nahi duten zero puntura. Puntu horretan elkartuko dira herritar zutabe guztiak. Eta gero, Zubietara jaitsiko dira:

Otsailak 28, igandea

- 08:00 Zizurkilen, plazatik.
- 08:30 Hernanin, Gudarien Plazatik.
- 09:30 Añorga Txikitik.
- 10:30 Lasarte-Orian, Okendo



Aiztondo bailarakoak Zizurkildik abiatuko dira, igandean goizeko 8:00etan.

plazatik.

- 11:00 Usurbilen, frontoitik.
- 11:00 Zubietan, frontoitik.
- Herritar zutabeen hitzordu ba-
- teratua.
- 12:00 Zero puntuan.
- 13:00 Amaiera Zubietako frontoian.

Erraustegia, proiektu honen aurkako herri plataformez inguratua

Erraustegia eraiki asmo duten gunea, egitasmo honen aurkako herri plataformez inguratua dago egun. Osatu den azkena, Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkil batzen dituen Aiztondoko dugu. “Erraustegia proiektuaren bultzatzailei hausnarketarako deia luzatuko dien giza talde” gisa aurkeztu dira. Mehatxu larritzat hartzen dute erraustegia, azken hilabeteotan sortzen joan diren plataformen antzera.

Bilgune berri honekin, erraustegiaren “0 puntua” inguratzen duten udalerriz guztietan badira egitasmo honen aurkako taldeak. Erraustegia inguratu dute jada:

- Usurbil: Erraustegia Erabakia.
- Lasarte-Oria: Aire Garbia.
- Andoain: Ipar Haizea.
- Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkil: Aiztondoko plataforma.

Erraustegiari buruzko herri galdeketa izapidetzen hastera doa Udala

Erraustegia Erabakia herri plataformak, Udalari erraustegiari buruzko galdeketa antolatzea eskatzeko azken hilabeteotan bildutako 1.185 usurbildarren sinadurak bere bidea egiten ari dira udaletxe barruan.

Aste honetako plenoan

Astearte honetarako deitua zegoen osoko ohiko bilkuran, Usurbilgo hondakinen tratamenduari buruzko herri galdeketa burutzeko galdera onartzea eta izapidetza abian jartzea eztabaidatu eta bozkatzeko zen udalbatza.

Xehetasun gehiago, datoren aldizkarian.

Eli Pagola bertsolaria: “Martxoaren 3ko bertso-saioa bizia izango da”

Aginagako San Praixkuetan aritu zen pasa den urrian, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan ere estreinakoz parte hartzen ari zen garaian. Usurbila dator martxoaren 3an, Emakumeen Egunaren bueltan Matrakak Usurbilgo Talde Feministak Artzabalen antolatu duen bertso-afaritara, Onintza Enbeita eta Oihana Iguaranekin batera. Bertso saio bizia eta giro polita izango dela aurreikusten du Eli Pagola Apeztxea ereñotzuarrak, bertso-afariko hirugarren parte hartzaileak, NOAUA!ri adierazi dionez.

NOAUA! Aginagako jaietan izan zinen. Zer moduzko publikoa dugu inguruotako bertso-afaritan?

Eli Pagola: Jatorra. Gertukoa izanda, etxeko publikoa. Ezaguna zaidan publiko mota bat, nahiz eta bertako jende asko ez ezagutu. Publiko eroso iruditzen zait, bertsolaritza estimatzen duena. Bertso-afari bat egitea exigentea da. Azkenean bertsolari gutxi daude, jendea horretara bakarrik dago, eta erantzun behar diozu.

N. Emakumeen Egunaren hariara antolatu da bertso afari hau. Oraintxe gai honi buruzko bertso bat bota beharko bazenu, zer islatuko luke zure bertsoak?

E. P. Galdera zaila da hori. Gehiengoak guretik abesten dugu, edo behintzat gure filtro batetik pasatako pertsonaia baten ahotik. Niri behintzat ez zait gustatzen pedante samar hitz egitea. Neure esperientzia, neure ahotik edo neure ingurutik pasa daitekeen zer-baiten inguruan botako nuke bertsoa. Gai honen inguruan bezala, beste gai askotan gertatzen dena. Kontu delikatuak aipatzen ditugunetan kontuz ibili behar dela uste dut, ze ez noa esatera gure hitzak indar handia duela, baina izan dezakeelako, gureak bezala beste edonorenak, publikoki esaten dugun edozerk, eta hor kontu handia ibili behar da. Edozein gaietan, nik uste erreparatzen gabe, neure inguruko zer-bait botako nukeela, bat batekotasunaren arabera beti ere.



Martxoaren 3an, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeitarekin batera arituko da Eli Pagola Artzabalen bertsoan.

ELI PAGOLA

“Bertsolari gisa maila handiko emakumeak daude eta, nik uste, poliki-poliki denborarekin gehiago ateratzen joango direla”

N. Emakumeen plazaratzea bertsolaritza. Nola gaude gai honekin?

E. P. Badabilta emakumeak plazan, onak gainera, ber-

tsolari gisa maila handiko emakumeak daude eta nik uste denborarekin, poliki-poliki denborarekin gehiago ateratzen joango direla. Konplexurik gabe ibiltzeko eremu bat da bertsolaritza, beste asko bezala. Emakumeak proportzioan gutxi daudela? Bai, baina gauden horiek gurea egiten badugu, azkenean beste edozein bezala eredu izan gaitezke. Bertso eskoletan dabiltazen ume pila bat dira emakumezkoak, horiek konplexurik gabe lortzea ateratzen badugu, mutilen pare aritzeko kopuruan behintzat. Oraintxe, emakumeen pre-

sentzia bertsolaritza ez da optimoa, baina ona da. Gaudenak gogotsu eta gustura gauden, eta lan egiteko motibatuta. Moldeak aldatzen joango dira, garaiak ere aurrera doaz. Denok dakigu duela 40 urte zer zen bertsolaritza eta egungoa ez dela berdina.

“Giro polita izango da Artzabalen”

NOAUA! Animatu zaletuak, bertso afaritara.

E. P. Bertsoak gustuko dituzten guztiek ateak irekita izango dituzte. Giro polita izango da. Oihana Iguaran, Onintza Enbeita eta hirurok elkar ezagutzen dugu. Onintzaren saio batzuk egin izan ditut, Oihanarekin ere saio bat edo bestean tokatu izan zait. Oholtza baina oholtzatik kanpo ere bertsolariok izaten dugu harremana eta hirurok ere harreman oso ona mantentzen dugu, saioetatik kanpo ere kontaktuan mantentzen gara eta nik uste horrek laguntzen duela elkarren arteko elkarrizketak, konplizitateak lortzeko orduan. Konplizitate hori nabaritu eta horri probetxua ateratzen saiatuko gara hiruron artean.

N. Zer nolako saioa aurreikusten duzu beraz?

E. P. Bertso saio oso bizia izango dela ikusten dut, bai umore eta erritmo aldetik ere.

Martxoaren 6ko Lilatoian parte hartzeko deia

5.000 emakumerentzako lekua zegoen eta ia 5.000 izen emate aste hasiera honetarako. Jendetza batuko du aurten ere, martxoaren 6an Donostian ospatuko den 27. Lilatoiak. Honez gero izen ematea itxi ez badute, kirolprobak.com atarian bidera daiteke inskripzioa. Aste hasierarako 44 emakume usurbildarrek emana zuten izena. Martxoaren 6an, 10:00etan jarri dute hitzordua Donostiako Bulebarrean. Partaideek 5 kilometroko ibilbidea osatuko dute.



Iazko edizioan, #Gattunk kamisetarekin atera ziren herritar asko. Aurtengorako ere, jantzi egokia izan daiteke.

Emakumeen Egunaren bueltan antolatu ohi den ekimen honekin bat egin eta lasterketan parte hartzeko gonbita luzatzen

diete Usurbilgo emakumeei, Matrakak Talde Feministakoek.

Iaz, #Kilometroak15 ekimenaren aldeko Gattunk taldea osa-

tu zuten usurbildarrek. Proba amaieran taldea saritu zuten.

Informazio gehiago: lilaton.es edo kirolprobak.com

Zinegoak”, martxoaren 4an Sutegin

Martxoaren 8ko ekimenen artean, berrikuntza bat aurten; Zinegoak, Bilboko 13. Nazioarteko gaylesbotrans zinema eta arte eszenikoen jaialdiaren baitan, laburmetraien proiektzioak antolatu dituzte beste 27 udalerrietan. Zinegoak Hedapeneko film motzen ekimena Usurbilator aurten estreinakoz, Matrakak eskutik, martxoaren 4an, 19:00etan Sutegin.

“Zinegoak Hedapenaren xedea jaialdi honetan aurkeztutako lanak udalerrietara zabaltzea da, zailagoa zaielako lan hauek eskuratzea. Izan ere, gure pantailetatik pasatuko diren pelikula gehienek ez dute lekurik izango areto komertzia-



Gazte transexual baten gorputz enbor tatuatua izan da Zinegoak 2016ko irudia.

letan, eta, izango dutenek, zortedun gutxik salbu, normalean areto txikietan lortuko dute. Bigarren helburua aniztasunari eta kulturari lotutako ekintzak eskaintzea da, edizio guztietan

Zinegoak jaialdiak biltzen dituen ikus-entzunezko edukia aprobetxaturik”, Zinegoak-entolatzaileren esanetan.

Informazio gehiago: zinegoak.com

Martxoaren 8ko egitaraua

Martxoak 3, osteguna

■ 20:30 Bertso-afaria Artzabalén, Eli Pagola, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita bertsolariekin. Gai jartzaila: Idoia Torregerai. Afaritarako txartelak Artzabalén salgai. Prezioa: 15 euro + euro bat (zozketa erotikorako).

Martxoak 4, ostirala

■ 19:00 “Zinegoak” zinema jaialdiaren baitako laburmetraien proiektzioa Sutegin.

Martxoak 6, igandea

■ 10:00 27. Lilatoia Donostian, Bulebarretik abiatuta. Izen emateko: kirolprobak.com

Martxoak 8, asteartea

■ 19:00 Elkarretaratzea Mikel Laboa plazan (Eguraldi txarra egingo balu, frontoian).

Antolatzaila: Matrakak, Usurbilgo Talde Feminista.

EHGAMen sagardotegiko afaria

Azken urteotan egin bezala, Euskal Herriko Gay-Les Askapen Mugimendua (EHGAM) Usurbil hautatu du, 2016ko “Maribollotrans Sagardotegia” ospatzeko. Martxoaren 19an izango da. 19:00etan trikipoteoa antolatu dute Txirristra tabernatik eta 20:30etan afaria Arratzain sagardotegian. Gero, jaialdia Antiguako Dokan. Afaritarako eta autobusean izen emateko epea zabaldu dute:

■ Prezioak: Sagardotegia: 24 euro. Sagardotegia + busa: 34 euro.

■ Izen ematea: martxoaren 14a baino lehen: Laboral Kutxa: E835-3035 0063 82 0630030222

■ Informazio gehiago: ehgam.eusfacebook.com/ehgam ehgam@yahoo.com 667 435 570

Txori kabiak doan eskuratzeko aukera



Alkartasuna Nekazal Kooperatiban eskura daitezke doan.

Garai batean bezala, berriz ere txori kabiak eskuragarri jarri ditu Alkartasuna Nekazal Koo-

peratibak. Kabi mordoa ditu edonoren eskuragarri. Doan lortu daitezke, Atallun duten egoi-

tzara gerturatuta. Informazio gehiago: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com

Nafarroa hegoaldeko oliba olioia eskatzeko epea zabalik

Martxoaren 2ra arte parte hartu dezakezue Errigorak antolatutako kanpaina berrian.

■ Ekoizleak: La casa del aceite (Cascante), Nuestra Sra del Rosario kooperatiba (Ablitas), Bardea (San Isidro del pinar) eta Ekolo (Arroitz).

■ Eskakerak noiz: otsailaren 19tik martxoaren 2ra.

■ Eskakerak non: Udarregi Ikastolan eta NOAUA! K.E.-ko egoitzan, 943 360 321 edo elkartea@noaua.eus

■ Oliba olio birjina estra ekologikoa, 5 litro: 32 euro.

■ Oliba olio birjina estra konbentzionala, 5 litro: 22,50 euro.

■ Ordainketak: bidioiak NOAUA! K.E.-ren egoitzan jasotzerakoan.

■ Informazioa: errigora.eus

BAZKIDEEN TXOKOA



martxoaren 4an Zozketatuko dugu:

AGINAGA
SAGARDOTEGIAN

2 LAGUNENTZAKO
afari edo bazkaria

NOAUAREKIN
TXOTXI!

noaua! euskararen aterpe



Erraustegia Erabakia

Gipuzkoarren laurdena ari gara aurrera egiten DENOK (bai lurra eta bai pertsonok) hobeto biziko garela bermatuko digun bizi eremuan: Egutero ari gara frogatzen posible dela sortzen dugun hondakinen %80 gaika biltzea, eta organikoa ere berezita bildu eta kudeatzea.

Egutero ekintza txiki hori, kontsumitzeko eta bizi-zeko modua eraldatzen ari zaigu eta Erraustegiaren mamuak jada ez digu beldurrik ematen. Begietara begiratzen diogu eta irribarrez esaten: ez duzu tokirik gure bizi-tzetan. Zertarako zara zu, Erraustegi? Gure seme-alabei 350 milioiko zor publikoa lepoaren bueltan kateatzeko? Herritarron osasuna arriskuan jartzeko? Gehiago kontsumitzearen eta erabili orduko botatzearen kultura bultzatzeko? Mesprenxatzen eta gorrotatzen dugun zaborra neurrigabe hazteko? Urruneko herrietako zaborra erosi eta kamioiez errepideak trabatzeko, labeek erregaia izan dezaten? Lurra bizi-tza lantzeko izan beharrean, espekulaziorako eta zementuaren negozioarako izan dadin? Zertarako zara zu, Erraustegi?

Bizitza aberasgarri bat eskuetan duenak ez dio mamuari beldurrik. Erraustegiaren bidea baino askoz bide emankorragoa da egu-

Otsailaren 28an Zubietara goaz



Igande honetan erraustegiaren aurka egingo den martxarekin bat egin dute herriko eragile askok.

ERRAUSTEGIA ERABAKIA

“Bizitzeko behar ditugun elikagai eta objektuetatik lur bizi sortzen jarraitu nahi dugu, eta ez ditugu gure osasuna eta lurrarena arriskuan jartzen dituzten hodei eta hondakin toxikoak sortu nahi”

neroko ekintza txiki batekin lantzen ari garena, eta oraindik hasi besterik ez gara egin. Bidean aurrera egin nahi dugu:

Urtero herritar bakoitzak sortzen dugun hondakin kopurua murrizten jarraitu nahi dugu. Elikagai osasuntsuak soilik eta munduak digeritu ditzakeen objektuak soilik etxeratu nahi ditugu.

Bizitzaren zikloak kudeatzen burujabeak izan nahi dugu.

Lurrarekin errespetuzkoa den gutxi onerako ekono-

mia zirkularra sustatu nahi dugu.

Auzolanari irekia dagoen kudeaketa publiko ardurasua eta gardena nahi dugu.

Azken batean, bizitzeko behar ditugun elikagai eta objektuetatik lur bizi sortzen jarraitu nahi dugu, eta ez ditugu gure osasuna eta lurrarena arriskuan jartzen dituzten hodei eta hondakin toxikoak sortu nahi.

Gipuzkoarren laurdena dagoeneko praktikan hala ari garelako:

Burua duenak ez du erraustegirik nahi bere herrian, eta bihotza duenak ez du beste inoren herrian nahi.

Horregatik, bat egiten dugu datorren otsailaren 28an erraustegiaren aurka egingo den Martxarekin, eta gure ahaleginak egingo ditugu bertan izateko. Bide batez, herritar guztiak animatzen ditugu Usurbilgo frontoetik goizeko 11etan abiatuko den zutabe

edo kolumnan parte hartzera.

Erraustegirik ez, ez Zubietan, ez inon.

Atxikitu diren eragileak: Aitzaga elkarte, EH Bildu, Hurbilago Merkataria eta Ostalari elkarte; Nafartarrak; Noaua kultur elkarte; Matrakak; Usurbilgo gaztetxea; Alkartasuna nekazal kooperatiba; Udarregi ikastola (Artezkari-tza Kontseilua + 80 langile); Zubietako Eskola; Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkarte; Zubietako jai batzordea; Usurbilgo euskal kantu taldea; Desegin; Rukula; Hotzikara; Izeberg; Andatza mendizaleen kirol taldea; Etumeta AEK euskaltegia; Usurbil Kirol Elkarte; Baxurde Txiki Triatloi Taldea, Pagazpe Pilota Elkarte; Zubieta Pilota Elkarte; Usurbil Futbol Taldea; Usurbil Zero Zabor; Zubieta Lantzen Kultur Kirol Elkarte; Usurbilgo Jubilatue talde bat; LAB sindikatua; Ernai; Zubietako Herri Batzarra.

Artzi
Patri 1102
latetxea

bazkariak EGUNERO
afariak, asteazkenetik larunbatera

© 943 362725 · © 688 690 361

Otar-Goxo
Elikagaiak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

USURBIL AUTOAK
·TAILERRA ·KARROZERIA ·KOTXEEN SALMENTA

Ford

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!!!

zerbitzu ofiziala
Zumartegi industrialdea

☎ 943 36 10 79

Nazio Gobernu berria du Udalbiltzak

Lekuko aldaketa eman da Udalbiltzan, Euskal Herriko udal eta udal hautetsien biltzarrean. Erakunde barruko Nazio Gobernu hau-tatu eta berritu zuten batzar-kideek, larunbatean Atarrabian egin zuten nazio biltzarrean. 2013. urteaz geroztik Usurbilgo alkate ohi Mertxe Aizpurua izan da Udalbiltzako lehendakaria, aurrerantzean, Hernaniko Udaleko alkatea izango da; Luis Intxauspe. Otsailaren 20ko biltzarrean irudikatu zuten aginte makilaren esku aldaketa. Lehendakariatz gain, herrialde desberdinetako 12 gobernukide ere aukeratu ziren saio berean. Gobernukideetako bat, Usurbilgo Udaleko zinegotzi Alaitz Aizpurua izango da.

Eskaintako konfiantzagatik batzarkideei eskerrak eman zizkien Intxauspek. Bere esanetan, erakunde eta hautetsien artean apurtuak dauden zubiak eraikitzea izango da talde berriaren lehen erronka. Horren harira, bilera erronda iragarri du udalekin. Honez



Mertxe Aizpuruaren lekukoa Luis Intxauspe Hernaniko alkateak hartu du. Batzar berean, gobernukide gisa izendatu zuten Alaitz Aizpurua Usurbilgo udal zinegotzia.

UDALBILTZA

“Egoera politiko berria dugu, eta Euskal Herria aintzat hartzen duen orok tokia du Udalbiltzan”

gain, Euskal Herriko hautetsiek Udalbiltzarekin bat egin dezaten elkarlana sustatzen segiko dutela iragarri zuen, “Udalbiltzak oraindik potentzialitate askoz handiagoa du” eta.

Zazpi herrialdeetako 262 udaletako ia mila hautetsik

atxikimendua adierazi diote jada erakundeari. Baina babes handiagoa lortu nahi dute. “Egoera politiko berria dugu, eta Euskal Herria aintzat hartzen duen orok tokia du Udalbiltzan, zabalik ditugu ateak eta uste dugu udal ikuspegitik herrigintzan sinesten duena, elkarlana bultzatu nahi duena eta kontsentsu berrietara iritsi eta akordioak nahi dituen oso eroso egon daiteke Udalbiltzan lanean. Horixe da gure lehen erronka”, Udalbiltzako nazio gobernu berriaren esanetan.

Juniorreko Espainiako Txapelketako finalerako sailkatuak

Larunbatean Zaragozan jokatu zen Junior mailako Espainiako Txapelketan parte hartu zuten Usurbil Judo Klubeko zazpi kideek. Haietatik bost, martxoaren 5ean Madrilen ospatuko den finalerako sailkatu dira.

Halere guztiek domina bana eskuratu zuten:

Brontzea Julen Alzasek (-60kg) eta Alba Vicentek (-52kg).

Zilarra Mikel Sanzek (-90kg) eta Mafer Carazasek (-48kg).

Eta urrea, Xabier Cazorlak (-73kg), Paula Vicentek (-48kg)



Finala Madrilen jokatuko da, martxoaren 5ean.

eta Lorea Etxabek (-70kg).

Otsaila hasieran bestalde, kategoria bereko Euskadiko

Txapelketa jokatu zen Gasteizen. Lehian parte hartu zuten Usurbil Judo Klubeko kide guz-



Eskubaloiko errifa zozketan saritua

Joxe Kruz Lazkano izan da Usurbil KEk egin duen errifa zozketako saritua. Bi laguntzako otordua tokatu zaio, Aginagako Urdaira sagardotegian. Iruditan duzue saritua, Joseba Lejardi Usurbil KEko ordezkariarekin batera.

Usurbil Kirol Elkarteak egin duen errifa zozketako azken zenbaki saritua 3.287 izan da. Zenbakiaren jabeari, Bruño etxeko mariskada ederra tokatu zaio.

Futbola Haranen

Otsailak 27, larunbata

■ 09:30 Alebin neskek:

Udarregi 6A-Udarregi 5

■ 10:30 Infantil mutilak:

Usurbil F.T.-Danena Amaro K.E. “B”

■ 12:00 Kadeteak:

Usurbil F.T.-Kostkas KE “B”

■ 16:00 Jubenilak:

Usurbil F.T.-Vasconia C.D.

tiak eskuratu zituzten dominak: brontzea, Itsasne Arruabarrenak (-52kg), Paula Santamariak (-70kg), Nestor Lacak (-66kg) eta Manex Aburuzak (-66kg).

Zilarra, Paula Vicentek (-48kg), Alba Vicentek (-52kg), Nagore Eizagirrek (-63kg), Julen Alzasek (-60kg), eta Joxe Arruabarrenak (-100kg).

Eta urrea, Mafer Carazasek (-48kg), Lorea Etxabek (-70kg), Xabier Cazorlak (-73kg), Mikel Sanzek (-90kg) eta Pablo Indiasek (+100kg).

Informazio gehiago: jcusurbil.com

Ordesarako asteburupasarako, orain eman beharko da izena



Aurreko igandean eginikoa da argazkia. Igoingo lepoan ageri dira. Epele-Ugaldetxo mendi irteera antolatu zuen Andatzak, eta primerako eguraldiarekin ibili zirela azaldu digute antolatzaileek.

Irailaren 9, 10 eta 11n Ordésara asteburu pasa antolatu du Andatza Mendizaleen Kirol Taldeak. Oraindik sei hilabete pasatxo falta diren arren, asteotan bideratu nahi dute izen ematea. Martxoaren 16a baino lehen apuntatu beharko dute, irteeran parte hartu nahi duten mendizaleek.

“Irailaren 9,10, eta 11n Ordésara joango gara Monte Perdido eta Tozal de Mallo egiteko asmoz. Gorizeko aterpean eta Torlako Refugio Lucien Briet-en ostatua hartuko dugu.

Erreserbak egiteko garaiz ibili beharra dago eta horregatik, irteera horretara joateko asmorik baduzu, martxoaren 16a baino lehen izena ematea eskatzen dizugu”, nabarmendu dute antolatzaileek.

Argibide gehiago:

■ Izen ematea: aurrerapen moduan 20 euro ordaindu behar dira martxoaren 16a baino lehen, kontu zenbakiotako bategan: Rural Kutxa: 3008 0259 1630 0543 0321 Kutxabank: 2095 5069 0710 6848 9805

■ Oharrak:

-Plaza mugatuak. Izena emateko zerrenda errespetatuko da, plazak bete arte. Lehentasuna Andatza M.K.T.-ko bazkideek dute.

-Andatza M.K.T.-k antolatzen dituen irteeretan parte hartzeko derrigorrezkoa da, mendiko federatua izatea eta aseguru txartela indarrean edukitzea.

-Federatu gabe dagoenari tramitea egingo zaio, hala nahi badu.

■ Informazio gehiago: andatzamendizale.info

■ Antolatzailea: Andatza MKT.

Bi usurbildar, EHko Mus Txapelketako finalean

Larunbatean jokatu ziren Euskal Herriko 8. Mus Txapelketako herrialde mailako finalak; Gipuzkoakoa, Alegiako kultur etxean. Aitor Makazaga Beristain eta Juantxo Iraola Otaño martxoaren 5ean jokatu den finalean arituko dira.

Euskal Herriko Mus Federazioak aditzera eman duenez, “oraindik finala jokatu ez bada ere, dagoeneko badugu Gipuzkoatik Zuberoara bertaratuko diren 32 bikoteen zerrenda”. Beste herrialdeetako sailkatuekin batera, martxoaren 5ean Urdiñarben (Zuberoa) os-



Aitor Makazaga eta Juantxo Iraola bikotea sailkatu da finalera.

patuko den final handira igarotzen diren gipuzkoarren artean, Usurbilgo bikote bat dugu; Aitor Makazaga Beristain eta Juantxo Iraola Otaño.

Migel Angel Goenaga Etxeberriak eta Iñaki Esnaola Zabalak ere parte hartu zuten finalaurrekoan.

Informazio gehiago: ehmus.eus

Usurbil FTko beteranoak, Zumaian



Zumaian lagun arteko partida izango dute igande eguerdiko 12:00etan, Usurbil F.T.-ko jokalariek ohiek osatu duten beterano taldekoek. Gogoan izan, taldea jokalariek gehiago izate-

Eskubaloia

Kiroldegian

Otsailak 25, osteguna

■ 20:30 Senior mutilak 1.nazionala, lagun arteko: Ucin Alumini-
nio Usurbil-C.B. Muskiz

Otsailak 27, larunbata

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 5B-Udarregi 5A

■ 09:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6C-Urnieta 6B

■ 10:30 Alebin mutilak:

Udarregi 6A-Udarregi 6B

■ 11:30 Infantil neskek,

Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi B-Urola Eskubaloia

■ 12:45 Infantil mutilak, Gipuzkoako Txapelketa:

Udarregi B-Egia Eskubaloia

■ 17:15 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Urduliz Eskubaloia

■ 19:00 Senior neskek, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Zuazo

Otsailak 28, igandea

■ 09:15 Alebin mutilak, Errendimenduzko Gipuzkoako Txapelketa:

Usurbil K.E.-Egia Eskubaloia

■ 10:15 Jubenil mutilak, Euskal Liga:

Usurbil K.E.-Indupime Basauri

■ 11:45 Kadete neskek, Gipuzkoako Selektzioa: pres-takuntza saioa.

■ 11:45 Infantil mutilen Gipuzkoako selektzioaren pres-takuntza saioa. Usurbil K.E.-ko Udarregi A taldeko kide Julen Lejardi eta Udarregi B taldeko Eneko Furundarena eta Harri Bruño jokalariek deitu dituzte hitzordura.

ko gogoz dela. Parte hartzeko gonbita luzatu dute. “Futbola gustuko izan eta Usurbil F.T.-n jokatu baduzu, beteranoen taldean parte hartu!”. Argibide gehiagorako: 658 709 246.

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisua salgai Kaxkoan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Altzariek. 670 070 562.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 60 metro, 140.000 euro. Tel: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m2. Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanpoaldea. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisua salgai Santuenean. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna, aluminiozko leihoak, berogailua etxe guztian eta hiriko gasa. 15 metro koadroko baju bat ere bai. 95.000 euro. 659 460 979

Askatasuna plaza aldera ematen duen etxebizitza eta garaje marra salgai Kaxkoan. 3. solairua. 80 metro koadro, 3 logela, 2 komun, sukaldea, jantokia, egongela eta 24 metro koadro trasteroa. 269.000. 943 916 834.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

Atikoa Zubietan, 110m2 erabilgarri. 2008an guztiz berritua, teiatuaren estruktura ere. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2-ko egongela. Haize egokitua. 225.000. 669781959 Julen

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpoaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

(Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m2. Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna, salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukeraz ezin hobea. Inaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Pisua alokatzen da Kaxkoan. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Hiru balkoi eta dena kanpoaldera. Altzariek. 670 070 562.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logelekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu bat alokairuan Artzabalen. Behoko solairuan, terrazarekin eta oso egoera onean. Tel. 655 708 276.

Pisu baten bila nabil, altzariek eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatuko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta, garajeak

Kale Nagusian, garaje itxi handi bat alokatzen da. 943 361 235.

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairu batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Erreka-txiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko izango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Bateria edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Kentuenen, neska bat behar dugu garbitasuna eta plantza egiteko. Kotxea eta paperak. 943 361 127

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Neska bat eskaintzen da etxea zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko orduka. Disponibilitatea 9:00etatik 15:00tara. 629 110 310.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsalde, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketarak egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.

Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularak emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jabetxeren batean harraskako garbiketarak egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan ari zeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Lan bila nabil. Interna moduan eta umeak zaintzen. Tel. 645 530 490

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketaren. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegiko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziarekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituluduna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Latina, frantsesa, ingelesa, euskara klaseak ematen dira, etxean. Ekonomikoa. 600766068

Arratsaldetan pertsona helduak



Zorionak Nerea eta Julene!

Otsailaren 28an eta martxoaren 7an ospatuko ditugu zuen urtebetetze egunak. Zorionak gure etxeko pitxurrite! Orain bezain ederrak izaten segi! Muxu handi bat familiaren partez.

OHARRA: Martxoaren 4an ostirala aterako dugu hurrengo NOUA!. Oharrak, zorion-agurrak, bestelako deialdiak... jakinarazteko azken eguna: otsailak 29 astelehena. E-postaz: erredakzioa@noaua.eus

Heriotzak

Miguel Zudaire

Larraz

80 urterekin hil zen
otsailaren 21ean Usurbilen



M^o Luisa

Iruretagoyena Urbieto

88 urterekin hil zen
otsailaren 16an Usurbilen



zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketan, plan-txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat eskaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezindak edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketa egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papelak. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketan... orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Mutil gazte bat eskaintzen da, ingelesa, frantsesa, latina, filosofia emateko. Merkea. 600 766 068. Jokin

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile titulua-ekin 688826968.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen prest. Interna bezela ere. Edozein ordutegi. 608299579

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientziarekin. 722 575 781.

Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan lan egingo nuke. Interna bezela ere bai. Edozein ordutegi. Esperientzia eta papelak. 690146067.

Mutil bat lan bila dabil helduak zaintzeko edo baserrian lan egiteko. 690146067.

Interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen. Esperientzia daukat. Ezagutza, sukaldaritzan, garbiketan... 604148284.

Lan bila nabil. Esperientzia sukalde laguntzaile bezela, zerbitzari bezala, garbiketan, karga eta deskargan, frutadendan... 663 447747.

Lan bila nabil, orduka edo interna moduan. Garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko. 631 277 061

Gidabaimen guztiak ditut, baita garabi eta orgatilara ere. Lan prebentzioko ikastaroa daukat. Esperientzia altua. 657 535 299.

Lan bila nabil. Interna moduan nahiago. Esperientziarekin, eta papelak egunean. 680 804 124.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Xiomara. 631 193 521.

Emakume euskalduna gertu interna joateko moduan. Klinika laguntzaile titulua-ekin. Tel. 688 826 968. Deitu: 17:00 - 19:00, eta larunbata 15:00 - 19:00.

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 631 333 251

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 653 620 770

Neska, garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak eta haurrak zaintzeko. Interna edo externa moduan, arduratsua eta erreferentziarekin. 672 740 521

Pertsona helduak zaintzeko, interno eta orduka. Gauak etxean edo ospitalean pasatzeko. Esperientziarekin. 648 761 874.

Paperak ongi dituen neska bat lan bila dabil, etxeko lanak egiteko, orduka. Esperientzia handia. Erreferentziarekin. 638 602 597.

Neska euskaldun batek lan egingo luke arratsaldetan, 4 ordu, helduak zaintzen. 626 735 354.

Emakume bat lan bila dabil etxe batean bere seme-alaba gaztekin bizitzeko. Lasarte edo Usurbilen. 689 344 946.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka...Paperak ongi eta erreferentziak (umeak zaintzen, garbiketan eta ostalaritzan) 698

322 406.

Lan bila nabil, sukaldari, zerbitzari, gidari laguntzaile moduan edo garbiketa industrialean. Paperak ongi. 688 268 625.

Goizez lan egingo nuke garbiketa lanetan edo umeak edo helduak zaintzen. 661 378 340.

24 urteko neska usurbildar euskalduna klase partikularrak emateko prest. Euskara: EGA titulua (goi maila) Ingelesa: Advanced titulua (goi maila) Frantsesa: Goi maila 687025768 (Jaione)

Emakume euskalduna, gertu interna bezela joateko pertsona nagusiak zaintzeko. Klinika laguntzaile titulua-ekin. 619511789 / 943 760418.

BESTELAKOAK

Emakumezkoen bizikleta bat erosiko litzateke neska batenzako. Tel. 636 051 625. Leticia.

Egurarekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Urtebeteko ume baten zapata bat galdu genuen abenduaren 4an. Granate-berenjena kolorekoa, hosto berde pare batekin. See Kai Run markakoa, 5 tala. 639 469 577.

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Ume txaketa bat galdu da (marroia) Askatasuna plaza-Atxegalde bitartean 943110954

8-10 urteko haur baten tamainakoa den sudadera gorri bat galdu dugu. Letra grabatu beltzak ditu. 676 82 33 11

Babarrun beltza eta babarrun motz zuria salgai. Usurbilgo erriban eta botikarik gabe ekoiztutakoa. 65 777 01 31 (WhatsApp).

Memoria txartela galdu da argazki kamerarena, aurkitu baduzu eraman NOAUA!ra mesedez.

Bi "artzai txakur" oparitzen ditut. Bata lau urtekoa, etxea zaintzeko eta bere kumea, hiru hilabete eta erdikoa. Tel. 660 093 071.

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. Tel. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzeekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. Deitu 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Ordubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefona: 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Asteleheneetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....943 371 951
Atez ateko bulegoa.....900 776 776
Udalzaingoa.....943 361 112
Udal zerbitzuak (Brigada).....943 370 148
Sexu Aholkularitza Gunea.....697 919 516
Gizarte Zerbitzuak.....943 377 110
Diputazioa - Basetxea.....943 361 215
Bake Epaitegia.....943 372 336
Udarregi Ikastola.....943 361 216
Haur Eskola.....943 374 061
Zubietako Lanbide Eskola.....943 364 600
Zubietako Herri Batzarra.....943 372 077
Hastapen tailerrak.....943 360 465
KZgunea.....943 023 684
Oiarde Kiroldegia.....943 372 498
Sutegi Udal Liburutegia.....943 360 692
Zumarte Musika Eskola.....943 371 594
Etumeta AEK eskaltegia.....607 609 379
Kalezar Eguneko Zentroa.....943 365 249
Gure Pakea Zahar Egoitza.....943 368 770
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....943 371 751
Arrate Zahar Egoitza.....943 366 340
Usurbilgo Salvatore Parrokia.....943 361 239
Noaua! Kultur Elkarte.....943 360 321

Abere-Landare Babeslea.....943 376 650
Taxia (Angel).....607 928 770
Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....677 373 466
Eusko Tren.....943 470 976
LurraldeBus.....943 000 117
Korreos - posta zerbitzua.....943 362 894
Anbulategia.....943 362 013
Oa botika.....943 376 076
Iturralde botika.....943 363 395
DYA.....943 464 622
Gurutze Gorria.....943 272 222
Emergentziak.....112
Genero-indarkeria, arreta...900 840 111 / 016
Gonzalez Ehorztetxea.....943 362 163
Gipuzkoa Donostia Kutxa.....943 361 202
Euskadiko Kutxa-Laborala.....943 364 740
Banco Guipuzcoano.....943 370 006
Banco Popular Español.....943 370 411
BBVA.....943 377 155
Caja Rural Kutxa.....943 368 842
Argindarra - Iberdrola.....901 202 020
Gas naturala - Naturgas.....902 123 456
Telefonica.....1004
Euskaltel.....900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 25 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ostirala 26 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 27 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Igandea 28 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Astelehena 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astearte 01 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteazkena 02 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Otsailak 25 - martxoak 06

Osteguna 03 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 04 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 05 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 06 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani. 943 55 20 87
22:00 - 09:00

<https://www.cfgipuzkoa.com/>

Agenda otsaila

26 ostirala

- Ekialdeko dantzen ikuskizuna 19:00etan Sutegin. Sarrera doan.
- Presoen eskubideen aldeko elkarretartzea. 20:00etan Mikel Laboa plazan.
- Punk kontzertu gaua **Gaztetxean**. 23:00h

27 larunbata

- 'Sagarrondotik sagardora' ikastaroa. 9:00-13:00 Potxoenean. Ikus 12. or.
- **Kantu-jira** Eguerdiko 12:00etatik aurrera, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

28 igandea

- Errausketaren aurkako martxa, "0 puntura". Abiatzeko hitzorduak: 11:00etan Usurbilen, frontoitik; Zubietan, frontoitik. Amaiera ekitaldia 13:00ean Zubietako frontoian.

Larunbat honetako kantu-jira eguerdian izango da

Hemen dugu otsaileko azken larunbata, kantuzaleen hitzordua ere ate joka dugu beraz. Kantu-jira ospatuko da otsailaren 27an, oraingoan ez ordea iluntzean, eguerdi partean baizik. Eta gero, Urdaira Sagardotegian kantu bazkaria ospatuko dute. Otordurako izen ematea aste hasieran itxi zuten.

Otsailak 27, larunbata

12:00-14:00 Kantu-jira, Mikel Laboa plazatik abiatuta.

Ondoren, kantu bazkaria Urdaira Sagardotegian.

Antolatzailea: Usurbilgo Kantu Taldea.



Hilabeteko azken larunbatean aritzen dira kantuan. Honakoan, ordea, eguerdi partean batuko dira eta gero sagardotegian bazkalduko dute.

Ekialdeko dantza fusionatuen ikuskizuna

Ouarda El Kattoumi Mallalek antolatutako ekitaldian, ekialdeko dantza fusionatuen bosgarren ikuskizunaz gozatu ahalgo dugu. Emanaldirako sarrera doakoa izango da.

Ostiral honetan 19:00etan hasita, Sutegiko auditorioan.

Ostiral honetan, kontzertu gaua **Gaztetxean**

Punk musika gaua programatu dute Usurbilgo **Gaztetxean**, ostiral honetarako. "Etorri eta bizi musika zuzenean!", luzatu dute gonbita antolatzaileek: 23:00etatik aurrera, Pol Pot (Zaragoza), Marmol (Bilbo) eta Patronal Punk (Donostia) taldeak arituko dira.

Datozenak

Bertso afaria Artzabalen

Matrakak eta Usurbilgo Talde Feministak deituta, martxoaren 3an osteguna, 20:30etik aurrera Artzabalen.

■ Parte hartuko duten bertsolariak: Eli Pagola, Oihana Iguaran eta Onintza Enbeita.

■ Gai jartzailea: Idoia Torregerai.

■ Afaritarako txartelak: Artzabalen salgai. Prezioa: 15 euro, gehi euro bat (zozketa erotikorako).

Odol ematea, martxoaren 7an

Usurbilgo Odol Emaileen Elkartek finkaturiko hurrengo hitzordua, martxoaren lehen astelehenean, hilaren 7an, 18:00-20:30 artean anbulatorioan.

Ictusari buruzko hitzaldia Artzabalen

"Ictus: prebentzioa, detekzioa, jokabidea eta ondorioak" hitzaldia antolatuko du DYA Gipuzkoak martxoaren 7rako, astelehenez, 17:00-18:00 artean, Artzabalgo ekitaldi aretoan. Saiorako sarrera doakoa izango da.

Argibide gehiagorako: 943 46 46 22 edo dyagipuzkoa.com web orrian.

ARTZABAL
Baserría - Jatetxea
943 36 91 39
artzabaljartetxea.com

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMA S.L.
661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · MARTXOAK 5

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

GOIERRI · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 5

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA**

ESKORIATZA · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 19

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Maite Carreras
Ingeniaritza elektronikoa
Ikasle ohia eta ingeniaria
AIRBUS-en.

#erronkarakoprest

URDAIRA

Sagardotegia

astelehenak itxita

Aginaga 943 37 26 91



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN

DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarriletik maiatzak 1era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa
Astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: **943 55 58 46** Mugik: **616 287 867**



943 36 12 29

Iruin Sagardotegia | Astiazaran Sagardoak
Petritza bidea z/g. 20170 Zubieta USURBIL
www.iruinsagardotegia.com | www.astazaransagardoak.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehena izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • 943 55 69 81



SAIZAR

Sagardotegia

Kale-zahar auzoa, 39
USURBIL

Sagardotegiko erreserbak:

943 37 39 95

(Igande gaua eta astelehen
eguerdia itxita)

www.sidrassaizar.com

aginaga

SAGARDOTEGIA

Hotela **

URTE OSOAN
ETXEKO SAGARDOA
TXOTXETIK!

ORAIN, BERTAN LOTAN
GELDITZEKO AUKERA!

ASTELEHENETAN ITXITA

943 36 67 10

Aginaga, USURBIL www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

%100 bertako sagarra

Tel: **943 365 031**

Santuenea

